

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatu eta erabiltzeko laguntzak deitu dira

*110.000 euro dira guztira, eta eskaera-epea ekainaren 8an amaituko da*

Osteguna, 2016.eko maiatzak 19

Nafarroako Aldizkari Ofizialak gaur, osteguna (96. zenbakia, maiatzaren 19koa), [laguntza-deialdi](#) bat argitaratu du irabazi-asmorik gabeko elkarteek 2016an euskara sustatu eta erabiltzeko programak nahiz jarduerak egin ahal izateko.

Laguntzak eskatzeko epea (110.000 euro) ekainaren 8an amaituko da, euskararen erabilera soziala sustatzeari zuzenean lotutako jardueretako erabiliko dira eta hizkuntza horren ahozko komunikazioa hobetzeko, haren egoerari buruzko partaidetzako prozesuak eta hausnarketakoak barneratuz, edo euskarari buruzko informazioa modu baikorrean emateko informazio-kanpainak barneratuz.

Gainera, euskararen ahozko erabilerako prestakuntza-jarduerak diruz lagunduko dira gazte-taldeekin zuzenean lanean ari diren eragileentzat (mantentze-lanak, prestakuntza edo dinamizazioa), bai eta proiektio sozial edo sorkuntzako beste ekimen batzuk ere: hitzaldiak, mahai-inguruak, antzezlanak, bertsolarien saioak, ikus-entzunezko proiektioak, argitalpen txikiak, euskarazko webguneak sortzea edo euskarari egokitutakoak, euskararen erabilerari eustea eta sustatzea sare sozialetan, liburuak, CDak eta beste argitalpen batzuk argitaratzea.

Eskolaz kanpoko ekintzak eta ikastetxetan egindakoak kanpoan geratzen dira, eta baita honako hauek guztiak ere: Hezkuntza eta Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuen eskumeneko kanpamentu, txango, artisautza-azoka, ikuskizun, kirol-lehiaketak eta abar; musika-kontzertuak ere kanpoan geratuko dira.

Ekintza horietan, genero-berdintasuna sustatuko da edukiak prestatzeko eta egiteko orduan, sexista ez den hizkuntza bat erabiltzea eta parte hartzean parekotasuna izatea.